

Euskal liburugintza 2011

JOAN MARI TORREALDAI

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

2011ko honekin badira 35 urte lantegi berean dihardudala, euskarazko liburugintza biltzen eta aztertzen. Frankismo garaian genuen informazio falta gorriari erremedioa jartze aldera hasi nintzen. Informazio falta orain ez da ordukoa, baina bada orain ere, eta han eta hemen dabilzan datuak ez dira aski fidagarriak. Nire ahalegin honek erreferentzialtasuna lortzea du helburu eta amets, nahiz eta jakin esker gaiztoko lana dela egun informazioa iturburuetan barik edozein errekastotan bilatzen den garaiotan.

Lan honetan liburuen berri jakin eta horien informazio osoa eskuratzek du nekerik handiena. Iturri desberdinetara jo behar izaten dugu. Zorionez, sektorearen laguntasuna dugu. Liburu asko argialetxeetatik jasotzen ditugu (%41,5), aleak batzuetan eta fitxak besteetan. Sektorearen laguntza hori, baina, ez da oso-betea. Argitaldari guzti-guztiengana jotzen dugu, profesionalak izan ala ez, eta ikusten da erdiek ere ez dutela erantzuten. Ulertzekoa da liburu ekoizle koiunturalek ez erantzutea. Ez horrenbeste beste askok erakusten duten utzikeria edo axolagabekeria. Ez ote, hain zuzen, euren profesionaltasunaren termometroa?

Falta zaigun informazioaren ia %60ren bila, beste bide batzuk landu behar ditugu. Oso eskertzekoa da hainbat liburutegik ematen diguten laguntza paregabea, batez ere Donostiako Koldo Mitxelena eta Udal Liburutegiak. Liburutegietatik jasotzen dugu informazioaren %16. Informazioaren %40 pasa falta zaigu oraindik. Internet bidez moldatzen gara, batez ere ISBNko espainiar agentzia eta Eusko Jaurlaritzako ELSN bilgunea goitik behera arakatuz. Ipar Euskal Herriko ekoizpena ere bereizi arakatu behar da.

Lanak ditu, bai, liburuen fitxak osatzeak. Gutxiagorekin konformatzen dira asko. Baina uste dut esfortzuak merezi duela, euskarazko ekoizpenaren katalogo jator bat osatu nahi badugu behintzat. Gure lan honek badu abantaila bat, eta da: maitasuna benetakoa den frogekin erakusten du, alegia, titulu guzti-guztiak fitxatu egiten ditugu eta nornahiri eskaini kontrastea egin edota erabil ditzan. Jakinen webgunean zintzilikatzen dugu zerrenda (www.jakingunea.com/grafikoak/liburugintza_2011.pdf).

Tituluak eta orrialdeak

2011n argitara emandako tituluak guztira 2.237 dira. Zertan esanik ez da liburu analogikoz eta digitaletz osatzen dela unibertso hori. Hori bateko.

Eta besteko, guztiak dira «euskal liburu». Liburu dira, hasteko; alegia, Unescok hala kontsideratzen dituenak, euskarriak euskarri. Baldintza nagusi bat da ISBNren jabe izatea. Puntu horretan zehaztapentxo pare bat. Aztertu dugun unibertsoa ISBN duten liburuekin osatzen da eksklusiboki, digitalak izan, analogikoak izan. Jakinen webgunean, aldiz, 80 bat titulu erantsi dizkiogu ISBNdunen zerrendari. Azalpen bat merezi du horrek: han eta hemen egin dugun bilketan, 200 bat titulu gehiago jaso ditugu. Baina horien informazioaren kalitatea, arrazoi desberdinengatik, ez da beti fidagarria. Bada multzo bat, hala ere, nahiz ISBN ez eduki, ondo kontrolatuta daukaguna eta horrezaz gainera pu-

bliko orokorrarentzat gure ustez interesa izan dezakeena. Berriz diot, horiek sartu egin ditugu zintzilikaturiko zerrendan, baina ez ditugu aintzat hartu azterketa egiteko orduan.

Hortaz, jaso ditugunak «liburuak» dira, eta gorago aipatu bezala, «euskal» liburuak. «Euskal» definitzerakoan ez diogu begiratzen ideologiari edo geografiari. Euskaraz dagoena da euskal liburua; elebiduna ere bai, proportzio jakin batzuk mantentzen baditu.

<i>Iturria</i>	<i>ISBN espainiar agentzia</i>	<i>Precisa / Conecta</i>	<i>Joan Mari Torreal dai</i>
2000	1.425	1.589	1.519
2001	1.326	1.621	1.488
2002	1.342	1.588	1.667
2003	1.487	1.576	1.949
2004	1.904	1.584	1.859
2005	1.793	2.094	2.030
2006	1.525	1.710	1.822
2007	1.552	2.009	2.147
2008	2.156	2.094	2.573
2009	2.040	2.022	2.342
2010	1.852	2.006	2.023
2011	1.901	—	2.237

Aipatu ditugun irizpide horiek guztiak kontuan, gure uni-bertsoak 2.237 titulu ditu. Aurreko taulan ikus daiteke zein izan den titulu kopuruaren eboluzioa mende berrian zehar, 2000tik gaurdaino. Ondoko zutabetan agertzen da, orobat, beste batzuek ematen duten informazioa zein den.

<i>Orrialdeak / Urtea</i>	<i>2006</i>	<i>2007</i>	<i>2008</i>	<i>2009</i>	<i>2010</i>	<i>2011</i>
Orrialdeak guztira	255.686	317.713	368.411	310.657	253.621	284.118
Urtetik urtera %Δ	-10,46	24,26	15,96	-15,68	-18,36	12,02
Batez beste liburuko	137,39	146,68	142,46	132,99	125,37	127,-

Tituluen eboluzioak agertzen duen joera bera adierazten ote du orrialdeen eboluzioak? Hau da, tituluen kopurua gora doan neurri berean hazi ote da orrialdeen kopurua? Ez da kontu segurua. Egia da aurtengo produkzioa hazi egin dela titulutan eta orrialdetan, 10-12 puntu, baina oro har

ematen du liburuak argalduz doazela eta titulu kopuruaren eta orrialde kopuruaren proportzioa ez dela berbera.

Orrialde kopurua igo edo jaitsi ez da berdin egiten gai guztietan. Aurten, zehazki, ikasmaterialetan igo da gehiena, eta jaitsi egin da orrialde kopurua bai gizarte zientzietan eta bai zientziakoetan.

Gai sail desberdinetan, bestalde, liburuak ez dira orrialde kopuru berekoak. Urteko produkzioan liburuak 127 orrialde ditu, oro har. Libururik potoloena erlijiozkoa da (239 orrialde) eta gero gizarte zientzietakoa (200 orrialde). Literatur liburuak 158 orrialdekoa da, eta gutxiago ditu irakas-kuntzakoak (122). Denetan meheena haur eta gazte literaturakoa da, 73 orrialderekin.

<i>Orrialdeak / Urtea</i>	<i>2006</i>	<i>2007</i>	<i>2008</i>	<i>2009</i>	<i>2010</i>	<i>2011</i>
12 orrialde arte	23	35	53	62	68	88
13 eta 48 bitartekoak	404	509	649	528	433	459
49 eta 100 bitartekoak	378	401	434	377	348	494
101 eta 200 bitartekoak	545	607	652	585	469	561
201 eta 400 bitartekoak	318	385	449	383	326	377
401 eta 600 bitartekoak	60	83	103	85	64	63
600dik gora	24	42	56	40	29	35
Kopurua zehaztu gabe	109	104	190	276	286	243
<i>Guztira</i>	<i>1.861</i>	<i>2.166</i>	<i>2.586</i>	<i>2.336</i>	<i>2.023</i>	<i>2.320</i>

Azken aldiko ekoizpenean, zein litzateke euskarazko liburuaren lodieran joera nagusia? Ikusten da, urtea joan eta urtea etorri, berdintsu mantentzen dela multzoketa. 100-200 tarteko liburuak du preferentzia. Beheranzko joera indartsuagoa da kontrakoa baino. Berrehun orrialdetik beherako liburuak iazko ekoizpen osoaren %70 eta gehiago suposatzen du. Liburuxkak ere ugari dira: 50 orrialde azpikoak %23,5 dira, berrehun orrialdetik gorakoak baino gehiago (%20,5). Liburu txikiaren aldeko joera da nagusia, dirudienez.

Jardun editoriala

Ekoizpenean esku hartu duten eragileen lana aztertuko dugu hemen.

261 ekoizle

2.237 titulu ekoizteko eragile asko dira 261 (8,5eko ekoizpen ratioa). Asko izanik ere, hala eta guztiz ere, aurreko urteetan baino dezente gutxiago dira, iaz baino 30 ekoizle gutxiago.

Aurrerago zehaztuko dugunez, mota ugaritako eragileak aurkitzen ditugu 261 argitaratzaile horien artean. Gutxi batzuk, gutxienak, profesional petoak; eta gehien-gehienak beselakoak.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	150
2-4	52
5-9	26
10-19	8
20-29	8
30-39	3
40-49	4
50-59	1
60-69	0
70-79	2
80-89	0
90-99	1
100-149	5
150etik gora	1

Emaitzetatik epaitu beharko baitira argitaratzaileak ere, alderdi kuantitatiboari dagokionez behintzat ez da kukurruku jotzekoa taulak ematen duen irudia. Laburbildu dezagun zenbait datu, besterik gabe:

- %57,5ek titulu bakarra atera du: 150 ekoizle dira.
- %77,5ek, hots, lautik hiru baino gehiagok, 10 titulutik behera ekoitzi du: 228 ekoizle dira.
- %12,5 bakarrik da hamar titulu edo gehiago atera duena. Bestela esan, 161 eragileko unibertsoetik 33 dira hamar titulu edo gehiago atera dutenak.
- %2,3 dira 100 titulu baino gehiago kaleratu dutenak: 6 argitaletxe dira.

Argitaletxe nagusiak

Emaitzetan nagusi diren lehen hamarrak bereiz hartu eta aztertu ohi ditugu urtero. Aztertu bainoago aurkeztu.

Multzo horren ezaugarri nagusitxoak azalduko ditugu.

Ekoizleen unibertsoan zati txiki bat da hori (%3,8) baina ekoizpen ratio handikoa (119,5); eta ekoizpenaren erdia pasa ekoitzi dute (%53,4).

Hamar horien ekoizpenak gora egin du iaztik hona, bai zenbaki absolutuetan (944 iaz, 1.195 aurten), eta bai ehunekoetan (%46,6 versus %53,4). Iaz plazaratu nuen hipotesia, hortaz, ez da zuzena. Alegia, editorial profesionalak bere produkzioa murrizten hasiak zirela idatzi nuen; eta, aurten-goak erakusten duenez, hori ez da guztiz egia. Partzialki bai, hala ere. Hainbat euskal argitaletxeren kasua behintzat bada. Emaitzetan nabaritzen ez bada, arrazoia beste bat da, kanpoko editorialen lanak egin duela gora.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	89	141	230	10,3
Ibaizabal	106	41	147	6,6
Ikaselkar	30	112	142	6,3
Anaya	68	68	136	6,1
Zubia	123	0	123	5,5
Susaeta	79	38	117	5,2
Giltza-Edebé	48	51	99	4,4
Aizkorri	25	50	75	3,3
Erein	50	22	72	3,2
Desclée de Brouwer	44	10	54	2,4
<i>Guztira</i>	<i>662</i>	<i>533</i>	<i>1.195</i>	<i>53,4</i>

Gauza ezaguna da lehen hamarren multzo hori bitan banatzen dela urtero: bertokoak eta kanpokoak, aurten bosna. Ekoizpenaren aldetik, baina, bertokoen lana besteen gainetik eroso egon da beti. Aurten lehen aldiz balioak trukatu egin dira, modu esanguratsuan trukatu ere. Hamarren baitako produkzioaren %58,5 da kanpokoena, eta bertokoena %41,5. Joera aldaketa horren garrantzia atzemateko goizegi da, noski, baina ez litzateke harrigarria krisiaren haizeak Espainiaren

alde jokatzea. Bi modutara behintzat: testuliburua ekoiztea (testuliburuez ari baikara gehiena) errentagarriago gertatzen zaie Espainiako merkatuan zabal finkaturikoei. Hori bateko. Eta besteko, PPren gobernuaren asmoak egia bihurtzen badira (eta hala gertatuko da, hala gertatuko denez), edukietan ere apenas egin beharko duten aldaketarik espainiarrek.

Argitalpen digitala

Zer aztertu handirik ez dago edizio digitalean. Hain da txikia. Begi bistakoa da ez duela hartu espero zen abiadurarik, ez gurean eta ez bestela. Gurean, gainera, aurreko urtetik hona aleak galdu egin ditu, 60 titulu gutxiago. Une batetik bestera leherketa gerta daitekeela sinetsirik ere, gaur-gaurkoz ez da apustu ausartik ikusten inguruan, agian euskarri unibertsalik ez dagoelako eta negoziarik edo errentagarritasun ekonomikorik ez delako sumatzen.

Gaur egun edizio honetan parte hartzen dutenak bi eratakoak dira, editore komertzialak eta unibertsitateak. Azken horietan, egia esan, UEU da lerro finkoa mantentzen duen bakarra. Argitaletxeetan, bestalde, presentzia txiki bat mantentzen da digitalean, baina gehiagotara pasatu gabe.

Hona lehen bostak, ekoizpenaren %71,5 egin dutenak:

- UEU: %23,5.
- Desclée de Brouwer: %18,5.
- Txalaparta: %10,5.
- Edelvives-Ibaizabal: %10,5.
- Elkar: %8,5.

<i>Gaia</i>	<i>Digitala</i>	<i>Analogikoa</i>
Aisia liburua	6,1	2,6
Giza-gizarte zientziak	20,3	15,7
Haur-gazte liburua	21,6	29,3
Irakaskuntza	15,4	33,5
Helduen literatura	21,6	12,9
Orotarikoak	1,2	0,6
Zientzia liburuak	13,5	4,3

Zer da digitalean ekoizten dena? Edizio analogikoan ekoizten denaren berdina edo parekoa al da, kopuruan ez bada ere gaietan? Paper euskarrian eta elektronikoa gai berak publikatzen al dira?

Bi edizioak alderatu ahal izateko, zutabe banatan jarri ditugu elkarren parean, batean digitala eta bestean analogikoa. Zutabeen arteko erlazioaren irakurketa desberdinak egin daitezke, baina edizio digitala leku propiorik gabe-edo iruditzen zait niri. Ez du edizio analogikoaren koherentzia eta, bestalde, ez nuke esango paperaren osatzailea denik ere. Produkzio trinkoagoa eta joera markatuagoak beharko genituzke geroko bidea ikusi ahal izateko. Orain-oraingoz literaturara isuria ikusten da, hala gazteen nola helduen literaturara.

Argitaratzaile motak

Argitaratzaileen unibertsoa nola deskribatu, beraien artean (jatorriz, indarrez, izaeraz) horren desberdinak direlarik? Osagai ezberdinak gurutzatu eta sailkapen bat eratzea da nire hautua. Kontua da unibertso horren aniztasuna tipologia koherente, sistematiko eta esanguratsuan azaltzea. Bi faktore nagusi lehenetsi ditut, jatorria eta izaera. Alegia, jatorri geografikoaren arabera, bertokoak eta kanpokoak bereizten ditut. Izaeraren arabera, bi azpimultzo bereizten ditut: pribatu, publiko eta parapubliko (unibertsitateak eta), batetik; eta, bestetik, argitaldari profesionalak aurrena eta bestelakoak gero, horien artean elkarte, fundazio eta beste. Eta, azkenik, edizio partekatua: hemen sartu ohi ditut jatorri eta izaera diferenteko argitaldarien arteko lankidetzak.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>ekoizleak</i>	<i>ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	55	1.040	46,5
Argitaratzaile publikoa	44	153	7,-
Elkarte, talde, fundazio...	77	147	6,5
«Kanpokoak»	38	698	31,-
Irakaskuntzakoa	14	128	5,5
Koedizioa	18	30	1,5
Besterik	15	40	2,-

Argitaratzaile multzo horien ezaugarriak azalduko ditut gain-gainetik.

- *Bertoko argitaletxe pribatua*

Euskal editore nagusien multzoa da hau. Bertan kokatzen dira erabakigunea Euskal Herrian dutenak, profesionalak, edo ofiziokoak, merkatu irekian lan egiten dutenak, enpresa pribatuak. Multzo indartsuena hauxe da: %21 izanik ere, ekoizpenaren %46,5 ekoitzi dute, ekoizpen ratioa 19 delarik. Produktio handiko multzoa da, bai, baina ez horrenbeste azken batean. Euskal edizioaren jakinaren gainean ez dagoen batek pentsa lezake horiek bermatzen dutela produktioa ia bere osoan. Baina ez, erdia ere ez dute ekoizten eta gainera ez dituzte horren urrutia Espainian etxe nagusia dutenak. Ez dakit mehatxu diren ala ez, baina lehiakide arriskutsu bai, merkatu berean eragiteko abantailak ugari baitituzte, beraien merkatu naturala askoz zabalagoa baita.

Bi multzo horien ondoan badira bestelako liburu ekoizleak ere, tantaka-tantaka ale ugari plazaratzen dituztenak, hala nola, elkarteak, fundazioak, erakunde administratiboak, unibertsitateak.

Bertoko argitaletxe profesional pribatuen sailera itzuliz, esan behar da berori dela orekatuena liburu mota guztietarik baduelako guztietan. Indar gehien-gehiena hiru sailetan du: haur eta gazteen liburuan (%16,7), irakaskuntzako liburuan (%11,8) eta helduen literaturan (%11,3). Ehuneko horiek ekoizpen osoarekikoak dira.

Multzo hau da, gainera, egonkor eta sustraituena. Berak berrargitaratzen du ekoizpenaren %56.

- *Argitaratzaile publikoa*

Administrazioak horrenbeste plegu eta adar dauzkan herria izanik gurea, normalizat eman beharko genuke liburu ekoizleen %17 izatea argitaldari publikoa. Eusko Jaurlaritzan eta bere departamendu edo erakunde kidetuak, Nafarroako Gobernu berdin, foru aldundiak, udalak... eragile ugari dira,

baina indar gutxi dute produkzioaren baitan (%7), ekoizpen ratioa 3,5 delarik.

Krisi ekonomikoagatik ala ez, jaitsi egin da alor honetako ekoizpena. Udalek jaitsi egin dute, Eusko Jaurlaritzak ere bai, Nafarroako Gobernuak zer esanik ez, eta Gipuzkoakoa salbu foru aldundiek ere apaldu egin dute produkzioa.

Eragin gutxiko liburua da hau, ahul iristen da merkatura, berrargitalpenik ez du eta giza nahiz gizarte zientzien eremuan kokatzen da gaiaren aldetik.

- *Elkarte, fundazio eta gisakoak*

Heterogeneoena eta zabalena multzo hauxe da. Ekoizleen %29,5 dira eragile horiek: esan bezala, taldeak, elkarteak, fundazioak, klubak...

Ekoizpena, aldiz, mugatua da: %6,5, eta ekoizpen ratioa apala, noski: 1,9. Oro har, indar gutxi du, nekez iristen da merkatura eta ez du luze irauten, salbuespenak salbuespen. Daukan eragina giza edo gizarte gaietan du. Eragile indartsuenetan aurkitzen ditugu Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Kutxa edo Labayru, dozena erditik dozenarako titulu kopuruarekin.

- *«Kanpoko» argitaratzaileak*

Euskal Herriko mugetatik kanpo daukate etxe nagusia ekoizleen %14,5ek. Multzo berean sartu ditugu etxe profesionalak eta bestelakoak. Estatu mailan, eta bereziki irakaskuntzaren munduan, izen eta indar handia duten hainbat etxek lan egiten du gurean, hala nola, Edelvives, Anaya, Santillana, Edebe, Everest, besteak beste.

Eragileen kopurua mantendu egin bada ere, jauzi esanguratsua ekoizpenean gertatu da; ekoizpen osoaren %31 ekoi-tzi dute, aurreko urtean baino 11 puntutik gora. Ekoizpen ratioa ere bertokoen berdintsua da, 18,3.

Berrargitalpenean beste jauzi bat dago: iazkoa bikoiztu egin dute, %34,6raino iritsiz. Eta itzulpena? Argitaldari horien jatorria aintzat hartuz, normala ere bada itzulpenaren

indarra. Aitortua %45 bat da, eta mozorrotua edo dena delakoa askoz ere handiagoa. Anayak, esate baterako, 136 titulu atera ditu, baina bat bakarra ere ez itzulia?

ekoizle horien eragin eremu nagusia ez eze, ia-ia bakarra haur eta gazteen mundua da, ikasmaterial guztien %18,6 eta haur nahiz gazteen argitalpenen %10,7 beroriena baita.

- *Irakaskuntzakoak*

Liburugintzan esku hartzen duten ikastetxe eta irakasgu-neetako argitaratzaileak ez dira asko, baina izan badira: %5,5. Maila bereko (%5,5) produkzioa dute, eta ekoizpen ratioa 9,1 da, elkarreana eta administrazioena baino altuagoa.

Giza eta gizarte zientzietan eragiten du pittin bat liburu mota honek (%2,4), baina merkatuan ez du indarririk, ez irau-penik. Berrargitalpenik gabeko liburua da.

- *Argitalpen partekatua*

Edizio partekatuan era askotako uztarketak eman ohi dira: bertoko eta kanpoko, profesional eta elkarte, publiko eta pribatu. Denetara, ekoizleen %7 dira holakoak. Ekoizpena, ordea, oso txikia da, %1,5.

Aurreko urteetatik hona, itxuraz asko jaitsi da multzo honen indarra. Baina sailkapen irizpide aldaketa da horren kausa, eta ez besterik. Orain arte, Elkar editorialak eta Ikastolen Elkarrekin elkarrekin egin ohi zuten ekoizpena multzo honetan kokatu ohi genuen. Aurten bi eragileon elkarlanik ez dago, Ikaselkar izeneko enpresa berria baizik, hemen kokatu ordez lehen multzoan sartu duguna.

Eskaintza editoriala

Eragile editorialen azterketatik emaitzetara lerratzen gara orain. Urtean zehar editorialek eskaini digutena bere alderdi kuantitatibo, formal eta materialetan aurkeztuko dugu kapitulu honetan, eta hurrengoan aztertuko ditugu gaiak, edukiak, mamia.

Urtero bezala, datu soil eta isolatua eman ordez, bere tesuinguru diakronikoan aurkeztuko dugu, bi erreferentzia guneren arabera neurtua: bata, mende honetako lehen urtea erreferentzi puntu bezala hartu eta urtez urteko eboluzioa erakutsiz; eta bestea, aurreko urtearekiko jokabidea azalduz.


Bi ikuspegiak grafiko bidez agertuko ditugu.

Ondoko deskribapenean ekoizpena barrutik aztertuko dugu, hau da, liburuaren izaera eta jatorria, eta ez bakarrik alderdi kuantitatiboak. Hala nola, zenbat titulu publikatu diren, horietatik zenbat diren nobedade eta zenbat errepikapen; nobedadeen barruan euskaraz sortua den ala euskarara ekarria; eta berrargitalpenaren informazio kuantitatibo eta kualitatiboa.

Egokia da inoiz erabili izan dudan matriuska errusiar panpinaren irudia azterketa hau azaltzeko: ontzi baten barruan bestea, eta horren barruan txikiagoa eta hurrengoan txikiagoa. Holaxe azterketa honetan ere.

2.237 titulu

Kopuru hau asko ala gutxi den aparte utzita, grafikoak argi erakusten du non kokatzen den zifra hori mende berri honen harian. Aurten gora egin badu ere, ez dago hor gailurra: 2008 eta 2009 urteetan handiagoa izan da liburu ekoizpena.



Kopuru hori, 2.237 titulukoa, paper euskarriko liburuz hornitzen da gehiena, baina barruan dauzka euskarri elektronikoan ekoitzi diren liburuak ere. Arestian agertu bezala, titulu horiek guztiak ISBNdunak dira, 2011ko lege gordailua dutenak.


Liburu mota	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Analogikoa	1.945	1.851	2.016	1.818	2.135	2.483	2.131	1.801	2.075
Digitala	4	8	14	4	12	90	211	222	162
Guztira	1.949	1.859	2.030	1.822	2.147	2.573	2.342	2.023	2.237

Tituluen eboluzioa

Eboluzio hori, berriz diot, 2000 urtearekiko erreferentzian aurkezten da, urtean urteko balioak egokiago neurtzeko (eboluzio-lerroa).


Hamabi urteko erreferentzia hori erreferentzia luzea da. Laburrago batek urte batetik bestera dagoen gorabehera markatzen du (eboluzioaren indizea).

Tituluen eboluzio-lerroa



2000 urtean baino 47 puntu gorago gaude, baina ez dugu aurten gailurra jo. Iazko jaitsaldia kenduta, aurreko bi urteetan gorago ibili gara, batez ere 2008an.


Tituluaren eboluzioaren indizea



Aurten 10,6 puntu gora egin dugu, 214 titulu gehiago iaz baino, alegia. Bada zerbait, aurreko bi urteetan beherantz baitzihuan. Bere onera etorri dela dirudi, besterik gabe, aurreko urtean galdurikoa (319 titulu) berdintzera ere ez baita iritsi.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Titulu ekoizpenaren banaketa ohikoena da nobedadeen eta berrargitalpenen artean egin ohi dena. Banaketa horren balioak neurtzea dagokigu orain, titulu berri edo nobedadeetatik hasita. Nobedadeen barruan bereizi beharko dugu, gainera, zer den euskaraz sortua (jatorrikoa) eta zer kanpoko hizkuntzatik ekarri dena (itzulitakoa).




Grafikoak hamabi urteotako produkzio osoa erakusten du, nobedadeen eta berrargitalpenen eboluzioarekin batera.

Urtea	Nobedadea	Berrargitalpena
2000	70,4	29,6
2001	76,1	23,9
2002	72,3	27,7
2003	72,2	27,8
2004	75,7	24,3
2005	71,9	28,1
2006	71,5	28,5
2007	71,-	29,-
2008	71,-	29,-
2009	71,-	29,-
2010	75,5	24,5
2011	72,5	27,5
Batez beste	72,5	27,5

Grafikoak lerro bidez erakusten duena taulak zutabeka azaltzen du, bien arteko erreferentzia zehaztuz. Urteotako batez besteko balioak aurtengo balio berberak dira: 72,5 da nobedadea eta 27,5 berrargitalpena. Gauza bat behintzat seguru xamarra da hor, eta da: bataren eta bestearen balioak, urtea joan eta urtea etorri, puntu gutxiren gorabehera mantentzen dira egonkor.


Nobedadeak

Nobedadeen eboluzio-lerroa




Tituluen grafikoaren kalkoa ematen du horrek, eta halaxe da balio txiki batzuen aldaketak salbu. Hor, esate baterako, 51,6 puntu gora gaude, tituluenean baino goraxeago. Logikoa da, bi eboluzio lerroen berdintasun edo antzekotasuna kontuan izanda, tituluen kopuruan nobedadeek duten pisua, berrargitalpenen ia bi halako.

Nobedadeen eboluzioaren indizea



Aurreko urtetik sei puntu gora egin du, bai, baina ez da horrenbeste, 94 titulu zehazki, aurreko bi urte segidan 17 puntu jaitsia baitzegoen, hau da, 309 titulu.

Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuak



Lehenbizi, argitara eman diren liburuetan zer den edo zenbat diren euskaraz sortu direnak eta zenbat erdaraz sortu eta euskarara itzuli direnak, hori hurrengo grafikoan bisualizatzen da. Jatorrizko bezala identifikatzen ditugu euskararen iturburua daukatenak. Gainerakoek, aldiz, orain euskaraz badaude ere, erdararen batean dute jaiotza.

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
2000	70,6	29,3
2001	69,4	30,6
2002	67,5	32,5
2003	69,3	30,7
2004	73,-	27,-
2005	73,7	26,3
2006	66,4	33,6
2007	64,9	35,1
2008	61,1	38,9
2009	72,-	28,-
2010	65,5	34,5
2011	69,-	31,-
<i>Batez beste</i>	68,5	31,5

Urteko produkzioan zenbat den euskaraz sortua eta zenbat euskarara itzulia, horra taulan zehatz-mehatz. Aurtengo erlazioa eta urteotako batez bestekoa berdina da. Laburbilduz eta biribilduz, esan daiteke jatorrizko liburua bestearen bikoitza dela, beti ere nobedadeen barruan.

Proporzio egokia al da? Itzulpenak (%30 pasatxo) ez al du pisu gehiegi? Garai batean gai horri buruz bazen literaturarik. Gaur ez da eztabaidatzen. Errealitatea onartu eta kito.


Gauza bat badu bere alde errealitate horrek: iraunkorra dela, laukian ikusten denez, proporzioa mantendu egiten dela, alegia. Horrek zera adierazi nahiko luke, errealitate jakin bati erantzuten diola, eta, ekoizpenaren baldintzak aldatzen ez badira, bere horretan mantenduko dela.

Eta, hala ere, niri altu xamarra iruditzen zait. Ingurura begiratzea besterik ez dago. Frantsesek ez dute proporzionalki gure erdia itzultzen. Espainian %20 pasatxo da itzulitakoa. Alderaketak ez digula balio esan diezadake norbaitek, gure

kultur premiak eta haienak ez direlako konparagarri. Halaxe da, izan. Baina inguru hurbilago bat ere badugu: gailegoek eta katalanek ere %25etik behera itzultzen dute. Eta guk %31!


Jatorrizkoa

Jatorrizko liburuaren eboluzio-lerroa



Nobedadeen barruan jatorrizko liburuaren pisua kontuan hartuta, grafiko horrek nobedadeenaren antza du, baina urte batzuetan dezente desberdintzen da. Jatorrizko liburuaren gailurra hor ere ez dago aurten, 2009an baizik. Nobedadeen gailurra 2008koa da, ordea.

Jatorrizko liburuaren eboluzioaren indizea




Ia hamabi puntu irabazi du aurten, 117 titulu. Ez da iritsi, hala ere, iaz galdutakoa berreskuratzerara (187 unitate).

Seinalagarria da hamabi urtetan bi aldiz bakarrik egin duela beherantz liburu mota horrek. 2006an nabarmen jaitsi zen, ia 20 puntu.


Itzulitakoa

Itzulitako liburuaren eboluzio-lerroa



2000tik hona 60 puntu hazi bada ere, gorago ibilia da hiru aldiz, nabarmen-nabarmen 2008an. Jatorrizko liburuak, ikusi berri dugun bezala, hurrengo urtean joko du gailurra.

Itzulitako liburuaren eboluzioaren indizea



Jaitsiera du aurten itzulitako liburuak, txikia bada ere: 23 titulu.

Berrargitalpenak


Nobedadea da txanponaren alde bat, eta beste aldea hau: berrargitalpena.

Itzulpenaren kasuan egiten genuen bezala, berrargitalpenean ere galde genezake ea egokia ote den nobedadeen eta berrargitalpenen arteko proportzioa. Kasu horretan ez ote litzatekeen berrargitalpena indartu behar. Berrargitalpena tituluaren arrakasta da, baina baita zerbait gehiago ere: izan ere, argitaletxearen eta liburugintzaren sendotasunaren ikur ere bada.

Ematen du, ematen duenez, errazago dela titulu berria ateratzea. Ohiko zirkuituetan sartu eta bere bidetxoa egiten du, jakina da. Ez da horren erraza nonbait liburuari bizialdi berria ematea, merkatua lantzea, irakurle berriak bilatzea, zirkuitu berriak sortzea.


Kontua da bizialdi bakarrarekin desagertzen dela gurean liburu gehiegi. Zein urruti gelditzen zaigun eredu frantsesa, non erdia eta gehiago den berrargitalpena. Gurea, kontrara, espainiar eredia da.

Berrargitalpenaren eboluzio-lerroa



2000an baino 24 puntu gorago gaude. Ez dugu gehiegi aurreratu. Hiru urtetan gorago egon gara berrikitan. 2006an ematen zuen bide berri bat abiatu zela, baina ez zuen asko iraun, hirugarren urterako beherantz hasi baitzen.

Berrargitalpenaren eboluzioaren indizea



Iaztik 24 puntu irabazi ditugu, 120 titulu. 2007ko balioetan kokatu gara berriz, 2008koetatik urruti oraindik. Gertatzen da aurreko urtea beltza izan zela oso, 2000. urteko mai-latik ere jaitsi egin baitzen. 120 titulu errekuperatu ditugu aurten, aurreko urteetan galtutako 241 tituluaren erdia.

Berrargitalpenaren mailaketa

Berrargitalpenen maila

Lehen argitaraldia.....	1.621 titulu
Bigarren argitaraldia.....	172
Hirugarren argitaraldia.....	125
Laugarren argitaraldia.....	62
Bosgarren argitaraldia.....	47
Seigarren argitaraldia.....	43
Zazpigarren argitaraldia.....	31
Zortzigarren argitaraldia.....	20
Bederatzigarren argitaraldia.....	29
Hamar argitaraldi edo gehiago.....	87

Produkzioaren laurdena da berrargitalpena. Horren %28 bigarren argitalpena da. Eta, beste muturrean, 10 argitaraldi edo gehiagoko biritza daukatenak %14 ditugu, 87 titulu. Gehienak tartean daude: berrargitaratu diren liburuen %58k 3-9 edizio izan dituzte.

Hamar argitaraldi eta gehiago

Zifretatik fitxetara igaroz, 10 edizio daukatenetik hasi eta 39. edizioraino kokatzen diren tituluak eskainiko ditugu banan-banan.

2011. urtean argitaratu direnetan 12 tituluk 20 ediziotik gora izan dituzte. Bik gaingitzen dute 30. edizioa: *Ostegunak* liburuak 2011n 38. eta 39. argitaraldiak izan ditu, eta *110. Street-eko geltokia* 37. ediziora iritsi da. Iaz ere bi horiek zeuden gailurrean.

10. argitaraldia

<i>A zer gaupasa!</i>	Mintegi, Miguel Angel
<i>Bihotz nahasiak</i>	Morillo, Fernando
<i>Euskara 3. Lehen Hezkuntza (País Vasco, Navarra)</i>	Piko, Biotza eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-1 (Ostadar berria).</i>	
<i>DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa</i>	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-2 (Ostadar berria).</i>	
<i>DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa</i>	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-3 (Ostadar berria).</i>	
<i>DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa</i>	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-4 (Ostadar berria).</i>	
<i>DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa</i>	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Galtzerdi suizida</i>	Landa, Mariasun
<i>Geografi atlasa. Euskal Herria</i>	Harluxet
<i>Gutun harrigarri bat</i>	Zubizarreta, Patxi
<i>Ikaslearen liburua 1 (Material globalizatua) (Txanela). Lehen Hezkuntza. 1. zikloa</i>	Saenz, Maite eta beste
<i>Irakurgaiak 1 (Txanela). Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa</i>	Askoren artean
<i>Kaliforniako neskak</i>	Iturralde, Joxemari
<i>Matematika 1 - Lan-koaderno 1 (Txanela).</i>	
<i>Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa</i>	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 1 - Lan-koaderno 2 (Txanela).</i>	
<i>Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa</i>	Goñi, Jesus Mari

- Matematika 1. Baga Biga (Txanela). LMH.*
 1. zikloa. 1. kurtsoa Goñi, Jesus Mari
- Matematika 2 - Lan-koaderno 3 (Txanela).*
 Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 2. kurtsoa Goñi, Jesus Mari
- Matematika 2 - Lan-koaderno 4 (Txanela).*
 Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 2. kurtsoa Goñi, Jesus Mari
- Matematika 3 - Lan-koaderno 5 (Txanela).*
 Lehen Hezkuntza. 2. zikloa Goñi, Jesus Mari
- Matematika 3 - Lan-koaderno 6 (Txanela).*
 Lehen Hezkuntza. 2. zikloa Goñi, Jesus Mari
- Matematikaren Hastapena. Lan-koaderno.*
 Haur Hezkuntza. 3-4 urte Pereda, Luis
- Matematikaren Hastapena. Lan-koaderno.*
 Haur Hezkuntza. 4-5 urte. 1 hiruhilekoa Pereda, Luis
- Musika 1 - Lan-koaderno 1 (Txanela).*
 Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa Xirula Mirula Elkartea
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 3 urte). 2. Nola ibili munduan, ohetik jaiki gabe* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 3 urte). 3. Azenario erraldoia* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 3 urte). 4. Haizemari* Ormazabal, Joxantonio
- Zazpikotea sanferminetan* Lartategi, Josu
11. argitaraldia
- Ainhoari gutunak* Sarrionandia, Joseba
- Amodioaren gazi-gozoek* Arana, Aitor
- Arotzaren eskuak* Ladron Arana, Alberto
- Euskara 1. Lehen Hezkuntza (País Vasco, Navarra)* Piko, Biotza eta beste
- Matematikaren Hastapena. Lan-koaderno.*
 Haur Hezkuntza. 5-6 urte. 1. hiruhilekoa Pereda, Luis
- Urtebete itsasargian* Meabe, Miren Agur
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 3 urte). 1. Urrestillako lau musikariak* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte). 1. Hansel eta Gretel* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte). 2. Zapatillak eta galtzak* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte). 3. Jon Zikinen anaia* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte). 4. Martin Txiki eta basajaunak* Murua, Mitxel

12. argitaraldia

<i>Arotzaren eskuak</i>	Ladron Arana, Alberto
<i>Botila baten historia</i>	Elortza, Tomas
<i>Egun denak ez dira berdin</i>	Etxeberria, Xabier
<i>Hamabost zauri</i>	Jaio, Karmele
<i>Suzko zapatak eta haizezko sandaliak</i>	Wölfel, Ursula
<i>Urtebete itsasargian</i>	Meabe, Miren Agur
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 1. Arroxali</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 2. Hiru txerrikumeak</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 3. Txanogorritxo</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 4. Ametsak airean</i>	Zugazagasti, Arantza eta beste
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 4 urte). 1. Koxmeren gezurrak</i>	Ormazabal, Joxantonio eta beste
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 4 urte). 2. Inurria eta txirrita</i>	Murua, Mitxel
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 4 urte). 4. Zazpi antxumeak</i>	Murua, Mitxel
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 1. Mari Kanela</i>	Murua, Mitxel
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 2. Lau anaiak</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 3. Bi anaiak eta sorginak</i>	Murua, Mitxel
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 4. Lehoia eta kilkerra</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Zazpikotea sagardotegian</i>	Lartategi, Josu

13. argitaraldia

<i>Elhuyar hiztegi txikia. Euskara-gaztelania / Castellano-vasco</i>	Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuak
<i>Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 1. DBHO. A-Eredua. Lan-koadernoak</i>	Ugarte, Alberto eta beste
<i>Gloria Mundi</i>	Morillo, Fernando
<i>Ingeles bat etxean</i>	Nöstlinger, Christine
<i>Ipuin batean bezala</i>	Irigoien, Joan Mari

14. argitaraldia

<i>Alaba</i>	Garate, Gotzon
<i>Amaren eskuak</i>	Jaio, Karmele
<i>Erinias taberna</i>	Ormaetxea, Amaia

15. argitaraldia

<i>100 metro</i>	Saizarbitoria, Ramon
<i>Amaren eskuak</i>	Jaio, Karmele

- | | |
|--|----------------------------|
| 16. argitaraldia | |
| <i>Esaera zaharrak eta txiste berriak</i> | Ormazabal, Joxantonio |
| <i>Maripertxenta</i> | Ormazabal, Joxantonio |
| <i>Ortzadarra sutan</i> | Morillo, Fernando |
| 17. argitaraldia | |
| <i>Zazpikotea euskaltegian</i> | Lartategi, Josu |
| 18. argitaraldia | |
| <i>Maite zaitut</i> | McIver, Nick |
| 19. argitaraldia | |
| <i>Ezin da ipuinik asmatu ala?</i> | Mendiguren Elizegi, Xabier |
| <i>Katu beltza</i> | Milne, John |
| 21. argitaraldia | |
| <i>Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian</i> | Atxaga, Bernardo |
| <i>Irakasle alu bat</i> | Mendiguren Elizegi, Xabier |
| <i>SPrako tranbia</i> | Elorriaga, Unai |
| 22. argitaraldia | |
| <i>Izurri berria</i> | Garate, Gotzon |
| 23. argitaraldia | |
| <i>Eztia eta ozpina</i> | Zubizarreta, Patxi |
| <i>Goizuetako ezkongaiak</i> | Garate, Gotzon |
| 24. argitaraldia | |
| <i>Eskubeltz taldearen abenturak</i> | Press, Hans Jürgen |
| 26. argitaraldia | |
| <i>Istanbulen elkartuko gara</i> | Chisholm, Richard |
| <i>Kittano</i> | Ormazabal, Joxantonio |
| 28. argitaraldia | |
| <i>Connemara gure bihotzetan</i> | Gabiria, Julen |
| 29. argitaraldia | |
| <i>Connemara gure bihotzetan</i> | Gabiria, Julen |
| 37. argitaraldia | |
| <i>110. Street-eko geltokia</i> | Zabaleta Urkiola, Iñaki |
| 38. argitaraldia | |
| <i>Ostegunak</i> | Arretxe, Jon |
| 39. argitaraldia | |
| <i>Ostegunak</i> | Arretxe, Jon |

Argitaraldi bat baino gehiago / Urte bereko berrargitalpenak

2011n argitaraldi bat baino gehiago izan dituzten tituluak dira horiek; 34 dira guztira. Bik salbu, bina edizio izan dute enparauek. *Haserretu zaitetze* eta *Ipuintxo bat gauero* liburuak dira urte berean hiru edizio izan dituztenak.

1/2 edizioak	
<i>1512 Nafarroa. Amets urratua</i>	Asiron, Joseba
<i>Baserriko animaliak</i>	
<i>Edurnezuri</i>	
<i>Eremu urriko hizkuntzen babesu European.</i>	
<i>Hamarkada berri baterantz</i>	Askoren artean
<i>Euskal Herria. Ezagutu / Descubrir /</i>	
<i>Découvrir / Discover</i>	Muñoz, Alvaro eta beste
<i>Igelak benetan hiltzen dira</i>	Irásizabal, Iñaki
<i>Kartzelako poemak</i>	Sarrionandia, Joseba
<i>Mea culpa</i>	Apaolaza, Uxue
<i>Nur eta magia-kanpamentua</i>	Martinez de Lezea, Toti
<i>Pertsonarengan oinarritutako arreta</i>	
<i>gerontologikoa. Makaltasun- edo</i>	
<i>mendekotasun-egoeran dauden adinekoei</i>	
<i>arreta emateko zentro eta zerbitzuetan</i>	
<i>esku-hartze profesionala gauzatzeko gida /</i>	
<i>La atención gerontológica centrada en la</i>	
<i>persona. Guía para la intervención</i>	
<i>profesional en los centros y servicios de</i>	
<i>atención a personas mayores en situación</i>	Enplegu eta Gizarte
<i>de fragilidad o dependencia</i>	Gaietako Saila (E.J.)
<i>Sakoneta</i>	Mendiguren Elizegi, Xabier
<i>Zer barkaturik ez</i>	Ladron Arana, Alberto
1/2/3 edizioak	
<i>Haserretu zaitezte! / Indignez vous!</i>	Hessel, Stéphane
2/3 edizioak	
<i>3 Mariak</i>	Urretabizkaia, Arantxa
<i>Ahatetxo itsusia</i>	
<i>Aladino</i>	
<i>Ederra eta piztia</i>	
<i>Hamelingo txirularia</i>	
<i>Oihaneko liburua</i>	
<i>Peter Pan</i>	
<i>Txanogorritxo</i>	
4/5 edizioak	
<i>Ahaztuen mendekua</i>	Ladron Arana, Alberto
4/5/6 edizioak	
<i>Ipuintxo bat gauero</i>	Askoren artean
5/6 edizioak	
<i>Musika airean</i>	Jaio, Karmele
6/7 edizioak	
<i>Aulki-jokoa</i>	Alberdi, Uxue

<i>Ezekiel</i>	Osoro, Jasone
<i>Nora ez dakizun hori</i>	Jimenez, Irati
<i>Suminaren estrategia</i>	Morillo, Fernando
9/10 edizioak	
<i>Bihotz nahasiak</i>	Morillo, Fernando
11/12 edizioak	
<i>Arotzaren eskuak</i>	Ladron Arana, Alberto
<i>Urtebete itsasargian</i>	Meabe, Miren Agur
14/15 edizioak	
<i>Amaren eskuak</i>	Jaio, Karmele
28/29 edizioak	
<i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
38/39 edizioak	
<i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon

Ekoizpen tematikoa

Orain arteko jardunean ekoizleak aztertu ditugu aurrena, gero ekoizpenaren ezaugarrietan murgildu gara, eta orain emaitza tematikoan zentratuko gara ondoko orrialdeetan.


Gauza jakina da urtero sei gai multzotan banatu ohi dugula ekoizpena. Tamainaz oso desberdin diren gai multzotan, bestalde. Urte batetik hurrengora gai multzoen hurrenkera apenas aldatzen den. Elkarren arteko proportzioak aldatu izan dira, baina horiek ere ez modu oso esanguratsuan. Horrek gauza bat adierazten du, eta da: premia errealei begira lan egiten dutela argitaletxeek.

Urtero-urtero, goi mailatan hurrenkera bera edo bertsua dela aipatu izan dugu. Egia da, iazko salbuespena tarteko. Iaz, lehen mailan haur eta gazteentzako literatura agertu zen, ustekabean, ikasmaterialen gainetik. Ez zen horrenbeste izan gazteentzako literaturak sekulako jauzia egin zuelako, ikasmaterialek txakalaldia izan zutelako baizik. Kontua bere onera etorria da jada.

Dihardugun lan hau bere osoan ikusteko bi modu aurkeztu ditugu hemen: bata, grafiko bidezkoa, proportzioak irudi bidez ikusi ahal izateko; eta bestea, lauki gisakoa, zenba-

ki absolutu eta erlatiboen ondoan 2000 urtearekiko erferentzia ere erantsiz.

Ondoren gai multzoak banaka aletuz joango gara.



Gai multzoa	Zenbaki absolutuak	%	2011/2000
Hezkuntza/ Irakaskuntza	721	32,-	+ 41,-
Haur eta gazteentzako liburuak	643	29,-	+ 73,-
Giza/ Gizarte zientziak	359	16,-	+ 40,-
Helduen literatura	303	13,5	+ 18,-
Zientzia/ Teknika	112	5,-	+ 89,-

Hezkuntza eta irakaskuntza: 721 titulu

	2007	2008	2009	2010	2011
Hezkuntza/ Irakaskuntza	699	879	747	491	721
ekoizpenaren %	32,-	35,-	32,-	24,3	32,-
Urtetik urtera %Δ	36,3	27,4	-14,6	-34,3	46,8
Itzulpenen %	35,2	39,5	30,6	17,7	17,-
Berrargitalpenen %	39,-	37,-	47,9	43,4	37,-
Orrialde kopurua	100.030	125.361	91.676	59.112	87.824
Orrialde kopurua liburuko	143,1	142,6	122,7	120,4	121,8

Hezkuntza liburuak berreskuratu du iaz galdua zuen lehen postua, indarrean irabazi ere. Iaztik hona 230 tituluren gorakada izan du, orrialdetan ere 28.000 orri gehiago.


Urteko liburugintzan bere pisua, orain, ohikoa da: %32, esan nahi baita, ia hirutik bat liburu mota hori dela. Horixe da, bestalde, gure liburugintzaren ezaugarria.

Itzulpena %17 da liburu mota honetan, baina aspertzeraino errepikatuko dut nire ustetan dezente gehiago litzatekeela egiaz eta benetan hainbat editorialek egia esango balute: begien bistakoa da ikasmaterial asko aitortu gabeko itzulpen eta moldapen direla.

Berrargitalpena %37 izatea seinale ona da, proportzio altua delako; are eta gehiago da esanguratsua, berori baita tirada handienak dituen liburu mota.

Batez besteko liburua 122 orrialdetakoa da, eta %47,5ek ehun orrialdetik behera du.


Irakaskuntzaren eboluzio-lerroa



Iazko zulotik irten eta gora egin du aurten, eta 2000 urtearekiko 41 puntu goitik da. Iaz, ordea, mende berriko lehen urtekoaren azpitik izan zen produkzioa. Igo da, bai, baina ezin da esan sabaia jo duenik, ezta gutxiagorik ere: hiru aldiz gehiago egona da gorago azken urteotan. Tarteko posizio batean dagoela ematen du.

Irakaskuntzaren eboluzioaren indizea

Iaz baino 47 puntu gorago dago orain. Iazkoa, berriz diogu, benetan urte beltza izan zen, are eta beltzago aurrekoaren segida izan zelarik.



Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	3,5
Hezkuntzaren antolakuntza.....	1,5
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	16,5
Lehen Hezkuntza.....	44,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	30,5
Besterik.....	3,5

%100

Batez ere Lehen Hezkuntzari dagokion liburuak egin du gora, eta horrekin batera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak. Pisu gehiena ere biek daukate. Haur eskolako materialak jaitsi egin dira, eta berdin ekoizpen didaktiko-pedagogikoa.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 643 titulu

	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Haur/Gazte</i>	551	647	511	568	643
Ekoizpenaren %	25,5	26, -	22, -	28, -	29, -
Urtetik urtera %Δ	31,8	17,9	-21,2	11,8	13, -
Itzulpenen %	53,3	59,6	43,6	59,5	66, -
Berrargitalpenen %	41,2	42,5	39,7	30,5	38, -
Orrialde kopurua	37.469	43.377	35.199	41.590	46.894
Orrialde kopurua liburuko	68	67	68,9	73,2	72,9


Argitalpen mota honetan guzti-guztia ez da literatura, tartean sartzen baititugu txikien entziklopediak eta bestelako lagungarriak.

Bere betiko lekura etorri dela atzera esan daiteke. Nahiz eta lehen mailatik bigarrenera jaitsi, liburu mota honen produkzioak ez du titulu gutxiago ekoitzi. Alderantziz, iaz baino 75 titulu gehiago atera du, eta orrialde kopuruan ere 5.000 gehiago. Liburu meheena da, 73 orrialdeko liburua baita batez beste.

Pisua ere irabazi egin du, nahiz eta puntutxo bat bakarria izan. Urtero bezala gogoratu nahi nuke, temati, senitarteko diren bi liburu mota horiek (ikasmaterialek eta gazteentzako bestelako liburuek) produkzio osoan sekulako pisua dutela, hain zuzen ere %61 aurten. Horrek esan nahi du hamar liburutik seik haur eta gazteak dituztela bezero.


Zorionez, berrargitalpen altuko liburua da hau: %38. Eta zoritxarrez, nire ustetan bederen bai, itzulpenaren pisua altuenetan altuena da: %66. Gehiegizkoa nire ustetan, kanpoko dependentzia salatzen duena, gure ingurune kultural guztietan gehiena.

Haur eta gazte liburuaren eboluzio-lerroa



2008. urteko ekoizpenaren pare dago aurten; gailurrean, alegia.

Haur eta gazte liburuaren eboluzioaren indizea



Liburu mota honek bi urte segidan gora egin duelarik, konpentsatua gelditu da 2009. urtean kezagarritzat jo genuen beherakada.

Giza eta gizarte zientziak: 359 titulu

	2007	2008	2009	2010	2011
Giza/Gizarte	398	502	448	387	359
Ekoizpenaren %	18,5	18,-	19,-	19,-	16,-
Urtetik urtera %Δ	3,4	24,2	-9,6	-13,-	-7,2
Itzulpenen %	19,-	21,5	18,-	24,3	19,-
Berrargitalpenen %	9,-	6,2	5,8	6,9	7,-
Orrialde kopurua	87.554	100.931	85.149	78.249	71.514
Orrialde kopurua liburuko	220	201,1	190,1	202,2	199,2


Aurreko urtean argitaratutakoa baino 28 titulu gutxiago ekoitzi dira liburu sail honetan, eta 6.700 orrialde gutxiago ere bai.

Liburu potolo xamarra da, 200 orrialdekoa. Itzulpenak indarra galdu egin du, bost puntu pasatxo. Eta berrargitalpenak ez du indarririk hartzen, %7 bueltan dabil urtea joan eta urtea etorri. Ahuldade kronikoa du hori liburu mota honek.

Urteko produkzioan galdu egin du pisua, hiru puntutxo bada ere. Ekoizpenaren %16 suposatzen du. Liburu mota

honek daukan ahuldaderik larriena, hain zuzen, hauxe da, produkzio eskasa. Zer da, izan ere, 359 titulu urteko, gai multzo hau horren zabala izanik, bertan kabitzen baita unibertsitate osoa bere fakultate guztiekin ia. Aurrerago, barne sailkapena egiterakoan, garbi ikusiko dugu gai mota bakoitzari zein huskeria dagokion produkzioaren banaketan. Badugu hemen nekez aitortzen dugun porrot bat, espero izatekoa baitzen euskararen normalizazioarekin eta irakaskuntzaren normalizazioarekin (eskola, unibertsitatea) gai hauek askoz ere gehiago produzituko zela eta askoz ere gehiago kontsumituko zela. Eta ez, ez bata eta ez bestea. Txanponaren beste alde da pentsamenduan eta zientzian erdaraz elikatzen garelara.


Giza eta gizarte liburuaren eboluzio-lerroa



Kezkatzekoa izan liteke hiru urte segidan erakusten duen beheranzko joera. Seinale ona ez da, behintzat. Azken sei urteotako ekoizpen apalena da aurtengoa.

Giza eta gizarte liburuaren eboluzioaren indizea

Hiru urte beltz segidan, hortaz. Titulu galera aldetik, 2008. urtetik hona 143 titulu desagertu dira. Lehen gutxi, eta orain gutxiago.



Barne sailkapena

Filosofia eta psikologia.....	3,-
Soziologia eta estatistika.....	17,-
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	6,-
Zuzenbidea. Administrazioa.....	5,5
Gizarte segurantzak. Seguruak.....	5,-
Linguistika eta filologia.....	12,-
Aurrehistoria.....	6,-
Historia eta biografiak.....	16,-
Etnologia.....	8,-
Edertia.....	8,5
Hirigintza eta arkitektura.....	3,5
Besterik.....	9,5

%100

Produkzioan lehenak soziologia, historia eta hizkuntzalari dira. Hurrenkera normala izan daiteke. Normala ez dena, berriz diot, zera da, hainbesteko irakaskuntza ahaleginek ez dutela edukietan bizitza normalizatua egiteko modurik eskaintzen, alegia, ez dagoela intelektualki euskaraz bizitzerik. Liburu mota hau gutxi produzitzen da, gutxi zabaltzen da, eta gutxiegi kontsumitzen. Gure liburu ekoizpenaren ekologian horixe da egiturazko defizit larriena, edo zulo beltza, nire ustetan.

Helduen literatura: 303 titulu

	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Helduen literatura</i>	264	306	377	292	303
Ekoizpenaren %	12,5	12, -	16, -	14,5	13,5
Urtetik urtera %Δ	-7, -	15,9	24,2	-23,2	3,8
Itzulpenen %	26,5	24,8	15,9	16,5	23, -
Berrargitalpenen %	31,8	33, -	22, -	24,3	21, -
Orrialde kopurua	48.471	57.300	57.315	42.245	47.963
Orrialde kopurua liburuko	183,6	187,3	152	144,7	158,3


Ale batzuen gorabeheran, aurreko urteko lepotik du burua helduen literaturak: 303 titulu. Ekoizpenaren baitako pisuak ere ez du aldaketa handirik: %13,5.

Literatur orrialdeak, guztira, 48.000 dira, iaz baino 5.700 gehiago. Liburua gizendu egin da aurten: batez bestekoak 158 orrialde ditu.

Azken bi urteetan ez bezala, aurten itzulpenaren indarra hazi egin da: %23 da, ia-ia lautik bat da itzuli den liburua. Ez ote da askotxo?


Berrargitalpenak, aldiz, ez du halako seinale onik ematen liburu sail honetan. Aspaldiko baxuenean dago berrargitalpena, %21en. Bost liburutik bat da berriz ateratzen dena, eta ez du ematen nahikoa denik, batez ere frantsesen ereduari so.

Literaturaren eboluzio-lerroa



Itxura guztien arabera, 2009 urteko gailur hura salbuespe-
nezkoa izan zen inondik ere, ez aurreko ez ondoko urteetan
ez baita parekorik ikusten.

Literaturaren eboluzioaren indizea



Aurtengo igoera, lau puntu, ezdeusa da, egia esan. Baina
2009koa ere ez zen kualitatiboki askoz gehiago agian, oina-
rririk gabekotzat jo baitaiteke hurrengo urteko beheraldia
kontuan hartuta.

Generoka

Eleberria. Ipuina.....	57,-
Olerkia.....	13,-
Antzerkia.....	4,-
Herri-literatura. Bertsoa.....	5,-
Saioa. Poligrafiak.....	6,-
Biografia. Kronika. Memoriak. Historia..	11,-
Besterik.....	4,-

%100

Proporzioen gorabeheratxoak tarteko, ia urtero aurkitzen
dugu hurrenkera bera, eta batez ere urtero narratibaren gai-
lentasuna. Dena den, hainbat azpi atal hornituxeago ageri
dira aurtan, eta narratiba bera ere pisuaren aldetik arinxea-
go. Hala ere, ez du ematen joera aldaketarik sumatzen denik.

Gainerakoak

Ekoizpenaren baitan pisu gutxiago daukaten alorrak sartzzen ditugu hemen. Hobeto esan, ez guztiak, zientzia eta teknika eta aisia liburua bakarrik. Pisu gutxiegi dutelako uzten ditugu aztertu gabe erlijio liburua eta orotarikoak.


Zientzia eta teknika: 112 titulu

	2007	2008	2009	2010	2011
Zientzia/Teknika	133	139	140	173	112
Ekoizpenaren %	6, -	4,5	6, -	8,6	5, -
Urtetik urtera %Δ	3,1	6,8	-1,4	23,6	-35, -
Itzulpenen %	21, -	28, -	25, -	29,5	18, -
Berrargitalpenen %	6, -	4,3	9,3	4,6	13, -
Orrialde kopurua	23.745	25.979	26.655	20.141	14.745
Orrialde kopurua liburuko	178,5	186,9	190,4	116,4	131,6

Titulutan jaitsi egin da (61 gutxiago), orrialde kopuruan ere bai (5.400 orrialde gutxiago) eta oro har ekoizpenaren baitako pisuan ere bai: hiru puntu eta erdi.

Osorik ala zatika, jaitciera itzulpenaren beheraldiarekin lotu daitekeela ematen du, nabarmena izan baita itzulpenaren jaitciera: %11,5. Aldi berean, harrigarria da berrargitalpenaren indarra, orain arteko guztian oso makala izan deanean: %13 da orain, iaz baino 8,5 puntu altuago.

Zientzia eta teknikaren eboluzio-lerroa



Hamarkadako gorabeheren lerroak goititasuna bigarren erdian hartu du, bistakoa denez. Abiapuntu oso apaletik hasia denez, edozein gora eta behera bereziki nabarmentzen dira grafikoan, baina ez dira horren mamitsuak: aurtengo beherakadak 61 titulu gutxiago suposatzen du.

Barne sailkapena

Zientzia. Kultura.....	10,-
Zientzia zehatzak.....	10,-
Natur zientziak.....	7,-
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	23,-
Medikuntza.....	31,-
Ingurumena.....	11,5
Besterik.....	7,5
	%100

Gora egin dutenen artean medikuntza da nagusi, bederatziz puntu, eta gero ingurumena. Gainerako guztiek, zientziek bezala ingeniaritza eta teknologiak, behera egin dute.

Aisia liburuak: 64 titulu

Musika.....	14,-
Argazkia.....	33,-
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	12,5
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	11,-
Kiosko literatura.....	29,5
	%100

Aisiako liburua liburu minoritarioa da, guztira 64 titulu. Ekoizpenaren %3 da. Iaztik hona orrialdeetan pitin bat igo egin da, eta batez beste 125 orrialde ditu.

Zerrendaturiko gaien taulan argazkiak bakarrik egin du gora, berak bakarrik, eta gainerako guzti-guztiek aleak galdu dituzte.¶

2011ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	688	30,8
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak.	45	2,-
Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	643	28,8
— Haur eta gazteentzako argitalpenak		
1. FILOSOFIA	11	0,5
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	11	0,5
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	20	0,9
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia.	20	0,9
Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak		
3. GIZARTE ZIENTZIAK	869	38,8
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea.	148	6,6
Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	721	32,2
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia		
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	32	1,4
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.	32	1,4
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia		
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	79	3,5
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia.	79	3,5
Ettxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza.		
Sukaldaritza		
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	114	5,1
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.	106	4,7
Margogintza. Argazkigintza. Musika	8	0,4
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak		
8. FILOLOGIA. LITERATURA	346	15,5
— Hizkuntzalaritza. Filologia	43	1,9
— Literatura. Literatur generoak	303	13,5
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	78	3,5
— Geografia	21	0,9
— Biografiak	22	1,-
— Kondaira	35	1,6
GUZTIRA	2.237	100